

## **Arrasateko EH BILDUren oharra aurrekontu parte hartzaileez**

Arrasateko EH BILDU aurrekontu parte hartzaileen alde dago. Herri askotan bultzatzen ditu eta aitzindari izan zen Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskutik 2011-2015 legealdian. Uste dugu ona dela herritarrek parte hartze zuzena izatea udal gaietan.

Arrasateko Udaleko 3 alderdik, EAJ, PSE eta Baleikek ituna egin zuten martxoan aurrekontu parte hartzaileak adostuz beste bi alderdiori abisatu gabe eta at utzirik. Ostean, enpresa bat hartu da gaia bideratzeko eta EH Bilduk parte hartu du prozesuan entzule gisa gaiaren garrantziagatik.

Gaur ez dugu prentsaurrekoan egon nahi izan formekiko gure ezadostasunagatik, Hasieran alderdikeriaz eta helburu elektoralez jokatu zuten gobernuak eta Baleikek. Orain, nahiz eta gu gonbidatu, ez dugu modu hori babestu nahi izan argazki batean. Gure protesta txikia izan da.

Herritarrak aldiz, nola ez, animatzen ditugu prozesuan parte hartzera. Etorkizunerako garrantzitsuak izango baitira aurrekontu parte hartzaileak, nahiz eta bide okerretik hasi.